# Sestao



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri ebakia: 1., urrean eraikinak berezko kolorean, eta euren artean makina soplantearena nabarmentzen da, urdin eta zilarrezko garrakaz eta kea darien bi tximinirekin; 2., zilarrean “Vizcaya” kurutzontzia (krosko baltza, masteria eta tximini beilegiak eta ganegitura zuria), masta nagusian banderatxoa dauala eta popan bandera, zilarrez astindutako itsaso urdinaren ganean.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo cortado: el 1º de oro, con edificios en su color, de los que sobresalen el de la máquina soplante, rematado en llamas de azur y plata, y dos chimeneas humeantes; el 2º de plata, con el crucero “Vizcaya” (casco negro, arboladura y chimeneas amarillas y superestructuras blancas), con gallardete en el palo mayor y bandera a popa, navegando sobre el mar de azur agitado de plata.

## AITAMEN HISTORIKOA

Sestaoko herriska Andra Mari eleiza eta bere gazteluaren inguruan sortu zan, baina ez daukagu herriska horren sorrerari buruzko barri askorik. XIV. edo XV. mendean eleizaren alboan Sestaoko dorrea egin eben –geroago Mirandako konteen jabetzakoa izan zan–, eta 1931n suntsitu egin eben. Sestaok, Santurtzik eta Trapagaranek kontzeju bakar bat osotzen eben Somorrostroko bailararen barruan (Enkarterriak). Ezelango duda barik Sestao herriska txikia zan, eta bertako herritarrak nekazaritzan, arrantzan (Sestaok portua eukan Ugarten) eta burdinoletako lanetan ibiliko ziran. Sestaoko burdingintzan eragina euki eban alboan meategi ugari eukiteak (Somorrostroko inguruetan); herrian lortutako burdina bertako portutik garraiatzen zan. 1805ean Sestaok itxi egin eban kontzejua, eta bere udala eratu eban. Parrokia Itsasoko Andra Mari zan –Miranda kondeak kobratzen zituan hamarrekoak–, eta bere jatorrizkoa Santurtziko San Jorge; baina kontzejua istean eleizak be banatu egin ziran. Halanda be, Sestaoren garapena mende bat geroago hasi zan, XIX. mendean, eta garapen horren arrazoia industrializazinoa izan zan.



## RESEÑA HISTÓRICA

Pocas noticias se tienen de los orígenes de esta población que surgió en torno a la iglesia de Santa María y a su castillo. En el siglo XIV o XV se levantó, junto a la iglesia, la torre de Sestao, que más tarde sería propiedad de los Condes de Miranda y que fue derruida en 1931. La aldea de Sestao formaba parte, junto con Santurtzi y San Salvador del Valle, de un solo concejo dentro del valle de Somorrostro, en las Encartaciones. Sin duda, se trataba de un pequeño pueblo y sus habitantes estaban dedicados a las labores agrícolas, la pesca (puerto de Ugarte) y al trabajo de ferrería, facilitado por la cercanía de la cuenca minera de Somorrostro, parte de cuya producción se traficaba mediante su puerto. En 1805 Sestao se separa de Santurtzi y San Salvador y forma ayuntamiento propio. Su iglesia parroquial, Santa María del Mar (cuyos diezmos cobraba el conde de Miranda), se separa de su matriz San Jorge, de Santurtzi. Pero será medio siglo después, hacia mediados del XIX, cuando, con la llegada de la industrialización, se produzca el gran desarrollo del municipio.

## IKURRIÑA

Deskribapena: granatea, udalaren armarria dauala erdian.



## BANDERA

Descripción: granate, con el escudo del municipio en el centro.